



Bertsozale Elkartearen Berripapera

|        |                        |
|--------|------------------------|
| ESPAÑA | FRANKEO<br>ITUNDUA     |
|        | FRANQUEO<br>CONCERTADO |
|        | ZK/NRO 37000126        |

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2017ko MAIATZA - 184. zenbakia

## Ekainaren 10ean izango da Saran Euskal Herriko Eskolarteko jai

**Herialdeetako eskolartekoak jokatu dira aurretik, eta ostean, Euskal Herrikoaren txanda izango da. Guztira 85 gaztetxo izango dira kantuan aurtengoan. Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak antolatzen dute ekimena, elkarlanean.**

Ekainaren 10ean jokatu da Euskal Herriko Eskolartekoaren finala, Sarako Trinketean. Goizean hasi eta egun osoko festa izango da Saran egingo dena.

Eskolartekoaren finalean herrialde bakoitzetik bertsolari bi ariko dira kantuan, aurretik jokatu diren herrialdeetako finalatik sailkatuko direnak. Euskal Herriko finalista guztiek jasoko dute saria: hurrengo Gabonetan egingo den Ahots Baten egonaldiaren hirugarren edizioan parte hartzeko aukera. Egonaldian antzerkigintzatik, kantagintzatik zein literaturatik datozen beste euskal gazteekin elkartzeko aukera izango dute bertsolari gazteek.

Goizez jokatu da finala, eta ostean, bazkaria egingo da Lur Berrin. Arratsaldean ere emanaldia egingo da.

Bazkarirako txartelak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean eskuratu ahal izango dira. Bestalde, Sarara joateko autobuserako jarri harremanetan zure herrialdeko Bertsozale Elkartearekin.

### Aurretik, herrialdeetakoak

Euskal Herriko finala iritsi aurretik, herrialdeetako eskolartekoak jokatu dira. Gipuzkoan eta Nafarroan dagoeneko amaitu dituzte; Bertsularien Lagunak Elkarteak maiatzaren 20an

egingo du bere jai, Hazparnen; Arabak maiatzaren 13an egingo du gazteena Legutian, eta 27an umeena, Gasteizen; eta, Bizkaian, maiatzan jokatu dira lau kanporaketa saioak eta ekainaren 3an egingo da finala, Markina-Xemeinen.

Eskolartekoa Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak antolatzen dute, elkarlanean.

**JULIO SOTO EZKURDIA**  
Iruñea, 2017-IV-08  
Txapeldunaren agurra



Doinua: Habanera

*Tú nos hacías cosquillas  
y tú nos diste el pecho  
izan gara maitasunez  
hazitako bi umetxo.  
Pero de un día pa otro  
todo se hizo barbecho  
eta destinuan aurka  
ezin da egin ezertxo.  
El camino de este duelo  
es muy largo y muy ancho  
zuek odoletan baino  
bazoazte mantso-mantso.  
Os agarráis a la vida  
aunque os falte un cacho.  
Txapeldun batzuk zarete  
aitatxo eta amatxo.*



2016ko Euskal Herriko Eskolartekoaren finala, Ereñotzun.//XDZ

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

# Bertsoa Bizi Gazte Eguna ospatuko da Legution, maiatzaren 13an

**Gazteak bertsolaritzara hurbiltzeko helburua du egitasmoak bertsoa, musika, rapa, kantua eta ikus-entzunezkoak uztartuz.**

Arabako Bertsozale Elkartek abiarazitako Bertsoa Bizi Gazte egitasmoa biribiltzeko, Bertsoa Bizi Gazte Eguna antolatu da Legution maiatzaren 13rako. Egun osoko topaketa izango da: bideoklipak ikusi, sariak banatu, Arabako gazteen eskolartekoaz gozatu, eta amaitzeko, zuzeneko saio berezi bat ere egongo da.

eta sariketa batean parte hartu ahal izango dute egindako sorkuntza lanarekin.

Informazio guztia [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) orrialdean dago ikusgai.

Gazteak bertsolaritzara hurbildu eta sormena euskaraz garatzeko helburua du Bertsoa Bizi Gazte ekimenak. Horretarako, bertsoa da helduleku nagusia, baina bestelako jardueri ere tokia egin zaie: musikari, rapari edota kantuari. Horiek ikus-entzunezkoetara eraman dituzte, hau da, parte-hartzaileek bideoak sortu dituzte aurrez egindako sorkuntza lanarekin.

Bertsoa Bizi Gazte hezkuntza arautuan eta hezkuntza ez formalean jarri dute martxan. Hezkuntza arautuari dagokionez, lau orduko ikastaroak eskaini dira ikastetxeetan, eta guztira 1.000 gazterengana heldu da proiektua. Ere ez formalean, ostera, bideoklip lehiaketa antolatu da. Gazteek euren bertso, abesti, rap eta bestelakoak bideoklipetan jaso dituzte,



Bertsoa Bizi Gazte ekimenaren aurkezpena.//XDZ

## Azken fasean sartu dira Herriartekoa eta Taldekakoa

**Kanporaketa faseak amaituta, finalurrekoen fasean sartu dira Gipuzkoako Herriartekoa eta Bizkaiko Taldekakoa.**

Azken txanpan daude Gipuzkoako Herriarteko eta Bizkaiko Taldekako ekimenak. Gipuzkoan maiatzaren 6an eta 13an jokatu dira bi finalerdiak. Maiatzaren 6ko finalerdia Alegiko pilotalekuan jokatu dute Karidadeko benta (Zizurkil-Asteasu) eta Erriarraitz 1 (Azpeitia) taldeek. Maiatzaren 13koa, berriz, Bergarako pilotalekuan jokatu da eta Osinalde (Gabiria) eta Am...ona (Amasa-Villabona) taldeek parte hartuko dute. Saio biak 17:30ean izango dira. Finala maiatzaren 27an jokatu da Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, ordu berean eta ondoren, afaria egongo da San Agustin kulturgunean.

finalurreko jokatu dira maiatzean eta saio bakoitzeko talde bana sailkatuko da finalera.

Markina-Xemeinen jokatu da azken norgehiagoka ekainaren 3an, 17:00etan. Gainera, bertsoaren inguruan egun osoko jaia antolatu da: goizean, Bizkaiko Eskolartekoa jokatu da. Ostean, bazkaria egongo da eta arratsaldean jokatu da Taldekakoaren finala. Eguna biribiltzeko erromeria egongo da, eta afaltzeko ogitartekoak ere bai.

Finalurrekoetako, finaleko, eta final osteko afarirako txartelak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian daude salgai.

Markina-Xemeingo bazkarirako eta autobuserako izena emateko deitu edo idatzi Bizkaiko Elkartera.

### Taldekako finala, ekainaren 3an

Bizkaian ere finalurrekoen fasean sartu da Taldekakoa. Hiru

Herriartekoari eta Taldekakoari buruzko informazio gehiago, sarean: [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

## Bapatean bilduma: urteroko lana eta urteroko oparia

**Prozesu luzea izaten du Bapatean bildumak bazkideen etxeetara heldu aurretik: bertsoaldiak jaso, transkribatu, hautatu... 1988tik ari da Xenpelar Dokumentazio Zentroa lan horrekin, eta aurtengoa izango da argitaratuko den 19. bilduma.**

Bertsozale Elkarteko bazkideok urtero jasotzen dugu Bapatean bilduma etxean. 1988an egin zen lehenengoa, eta ordutik, hutsik egin gabe argitaratzen da. Paperean ateratzen zen 2009ra arte, eta 2010etik gaur arte, CDa kaleratzen da, bertsoak irakurtzeko pdf fitxategiarekin eta audioekin.

Prozesu luzea bizi izaten du Bapatean bildumak. Horrela azaldu digu Felix Irazustabarrena Xenpelar Dokumentazio Zentroko kidea. Urtero hainbat saio jasotzen dituzte, bideoan zein audioan. Horretaz grabaketa sarea arduratzen da: Bertsozale Elkarteko hedapen taldea, herrialdeetako elkarteak, bertso-eskolak, norbanakoak... "2016an, esaterako, 411 saio daude jasota", adierazi du Irazustabarrenak, "bildu, transkribatu, eta informazio osagarria jasotzen da".

Gero, hautaketa lana dator. "Horretarako irizpide batzuk dauzkagu" dio Xenpelarreko kideak. "Urtean plazan gertatutakoaren isla agertu behar da, dabilzan bertsolariak, eta bertsoaldi onenak ere bai" azaldu du. Horretarako datuen araberako proportzionaltasun bat egiten da.

2016ko Bapatean bildumarako 87 bertsoaldi hautatu dira, 593 bertso transkribaturik, eta horietako 51 CDan entzungai. "Gainera pdfan bertan azaltzen den esteka klikatuz gero, [bdb.bertsozale.eus](http://bdb.bertsozale.eus).



Felix Irazustabarrena Xenpelar Dokumentazio Zentroko kidea, Bapatean bilduma eskuetan.//XDZ

## Maiatzaren 12an egingo dira Villabonan Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

*Tokiko Bilduma: herri bilketa eta ikus-entzunezko ondarea* izenburupean antolatu dira aurtengo Xenpelar Dokumentazio jardunaldiak; izena emateko epea zabalik dago.

Laugarren edizioa dute jardunaldiek. Maiatzaren 12an egingo dira, Villabonako Subijana etxean, 10:00etatik 14:00etara.

Aurtengoa herrietako ezagutza bildu eta geroratzeko egitasmoek sortzen duten ikus-entzunezko ondarearen inguruan antolatu da, zehazki, bideo grabazioen eta euskarri digitalen inguruko

esperientziak partekatzeko. Ttur Ttur Euskaltzeon Bilgunea, Bertsoa.eus, Ahotsak.eus, Aldudarrak Batasuna Elkartea, Ernest Lluch liburutegia, Xenpelar Dokumentazio Zentroa eta Durango 1936 Kultur Elkartea ekimenetako kideek hartuko dute parte.

Izen-emate epea zabalik dago maiatzaren 10era arte. Horretarako helbide honetara idatzi behar da: [xenpelar@bertsozale.eus](mailto:xenpelar@bertsozale.eus)

Antolatzaileak Mintzola Ahozko Lantegia, Euskal Herriko Ahotsak eta Koldo Mitxelena Liburutegia dira.



## Puntu jarrita

EKAITZ GOIKOETXEA ASURABARRENA

Burutik pasa eta egin. Eta ez diat uste berriz txapelketa batean bat-batean ikusiko nauzuenik. Pasa baino geratu egin beharko litzaidakek, burutik baino buruan.

Txapelketazalea izan nauk beti, lehiakorra. Nork bere helburuak eta pizgarriak izango ditik, baina niri jokoan jartzen dena irabazteko aukera izateko bezain lehiakorra izatea gustatzen zaidak, eta batez ere, lehiakorra izateko bezain ondo prestatzea dena delako erronka. Ezerk eta inork ez gaitik lehiaketetan parte hartzera derrigortzen, baina parte hartzeko hautua eginez gero, lehiaketarekiko, lezuleekiko nahiz norbere buruarekiko begiruneagatik, uste diat parte hartze hutsa baino helburu anbiziotsuagoekin hartu behar dela parte, eta helburuaren neurriko prestatzeta eginda. Eta nik azkenekoan horretantxe huts egin niala esango nitek, prestatetan. Ondo ezin eta asko prestatu nian. Ordura arte ia aisialdi osoa eskaintzen nioan bertsolaritzari, baina badakik, lana dela, bestelako ardurak direla, denborarekin denborak libre izateari uzten zio, eta azkeneko trenan baino ez zaik geratzen, Tolosan bertsokideekin kantatzetik ia gauerdian etxeratzen hauena. Eta makinistaren kabina urrutiegi zagok azkeneko treneko azkeneko bagoitik, eta nik haren aldamenean joan nahi. Beraz, luzamendutan ibili gabe, hurrengo geltokian jaistea erabaki nian, eta atzera ez igotzea harik eta itzulerarik gabeko txartelik gabe, neure burua ahalik bidaia luze eta gozagarriena egiteko bezain ondo prestatu arte. Bitartean, geltokitik jarraitzen diat bidaiariaren joan-etorriak, eta aspaldian ikusi ez dudanez, pozik jakingo nitek urte luzez bidaide izan nuen Bixentek gaur egun nola bizi duen bertsoa, behin jaitsita izan ote duen atzera txapelketaren trenera igotzeko tentaziorik, eta igoko balitz, ezinbestean zer sartuko lukeen maletan.

# Koplak

## Altza Kopla Hori! egitasmoa jarri dute martxan Araban

Kopla doinuek Arabako herriak hartuko dituzte maiatzeko eta ekaineko ostiraletan. Zortzi saio antolatu dira zortzi herritan, eta Arabako 28 bertsolarik, 6 gai-jartzailek eta tokian tokiko bina musikaririk parte hartuko dute. Saioei buruzko informazio osoa: [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian.

# Poto-Finixa



Bertsolari Gazteen BBK Sariketa:  
25 urte eta askoz gehiago!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Maiatzaren 7an ospatuko da Nafarroako Gazteen Bertso Eskolen Eguna

Irurtzunen eginen da aurtengoan Nafarroako Gazteen Bertso Eskolen Eguna, maiatzaren 7an. 18 urtetik beherako ikasleen elkargune gisa baliatuko dute eguna, elkar ezagutza areagotu eta harremanak sendotzeko. Eguna, gazteen 33 eskola daude martxan Nafarroan, 302 ikaslerekin.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

**Lanku**  
www.lanku.eus  
943 26 07 55

**TES TU RAK**

TESTOIK: TESTORA ZABALETIK: ESTURA

LITERATURA TESTUETIK ABIAUTURAKO BERTSO SAIOA

**OHOLTZA**

BENAT KROLEM

**PETRESKU ETZI EZ ETSI!**

PUBLIZITATEA